

## **ALDI BATERAKO ERAKUSKETETARAKO BITRINAK ETA BESTE ALTZARIAK MAILEGATZEKO BALDINTZAK.**

Museo Etnologikoak baditu zurezko apalak, metakrilatozko kutxatilak eta bitrina desmuntagarriak, museo, kultur etxe, kultur elkarte edo beste entitateei dohainik uzteko, aldi baterako erakusketetarako.

Eskatzaileak mailegurako baldintza hauek izan beharko ditu kontuan:

1. Eskabidea idatziz egin beharko da, zein posta bidez zein posta elektronikoz, helbide hauetara: Nafarroako Museo Etnologikoa, Merkatondoa, 13-4. nabea. 31200-Lizarrak eta [museo.etnologico.navarra@navarra.es](mailto:museo.etnologico.navarra@navarra.es).

Eskabidean xehetasun hauek aipatuko dira: altzariak zer erakusketetarako edo jardueretarako diren, haren izaera, non egingen den eta noiz.

Eskabidearen arduradunaren datuak, bere NANa barne, eta entitatean zer kargu duen. Ez da deus utziko irabazi asmoz antolatutako jardueretarako, edo entitate baten izenean ez diharduten partikularren ekitaldietarako.

2. Nafarroako Museoen Sistemako kideen eskabideek lehentasuna izanen dute beste edozeinen aurrean. Beste museoek eta bilduma museografiko iraunkorrek eginiko eskabideak egonen dira bigarren lekuan. Material aski badago, gainerako eskabideak tramitatuko dira.

3. Museoak adieraziko dio eskatzaileari zer altzari mailega daitekeen, behar duen materiala aukeratu dezan.

4. Aldez aurretik hitzartuko da museoko langileekin materiala jasotzeko eta itzultzeko eguna eta ordua. Lan horiek museoko langileen egun baliadunetan egingen dira, hots, astelehenetik ostiralera, 08:00ak eta 15:00ak bitartean.

5. Enbalajerako eta zamalanetarako langileak eta baliabideak eskatzaileak jarri eta ordainduko ditu. Eskatzaileak bermatuko du altzariak kalterik ez izatea lan horietan.

6. Jardueraren publizitatean, eskatzaileak adieraziko du “Julio Caro Baroja”-Nafarroako Museo Etnologikoa. Nafarroako Gobernua-ren laguntza izan duela.